

ZUZENDARI BERRIAK SAILA

Babeslea



ARAUDIA

Donostia Zinemaldiaren egoitza nagusia honakoa da:

DONOSTIA ZINEMALDIA
Victoria Eugenia antzokia
Okendo plaza 1
20004 Donostia
Tel.: +34 943 481212
Faxa: +34 943 481218
ssiff@sansebastianfestival.com

Webgune Ofizialak, www.sansebastianfestival.com, informazio xehatua eskaintzen du, eta Zinemaldiarekin eta bertako sailekin [harremanetan](#) jartzeko datuak ere biltzen ditu.

DONOSTIAKO NAZIOARTEKO ZINEMALDIA, SA elkarte Donostiako Udalak, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Espainiako Gobernuaren Kultura, Hezkuntza eta Kirol Ministerioak osatzen dute zati berdinetan, eta Donostiako alkate Eneko Goia du presidente. Donostia Zinemaldiko [antolakuntzaren](#) burua jaialdiaren zuzendari José Luis Rebordinos da.

Donostia Zinemaldia Film Ekoizleen Elkarten Nazioarteko Federazioak (FIAPF, www.fiapf.org) onartuta dago, "espezializatu gabeko lehiatzeko zinema-jaialdien" kategorian.

1. ARTIKULUA

Donostia Zinemaldiak ekarpen positiboa egin nahi dio kulturari eta zinema-industriari.

2. ARTIKULUA

Donostia Zinemaldiaren 63. edizioa Donostian egingo da, 2015ko irailaren 18tik 26ra bitartean.

3. ARTIKULUA

Donostia Zinemaldiaren 63. edizioan aurkeztuko dituzten film guztiak hautaketa batzordeak aukeratuko ditu. Batzorde horretako buru zuzendaritza izango da, eta zinemaren munduan eta zinema-jaialdietan adituak diren profesionalen osatutako [nazioarteko ordezkarien sare](#) baten laguntza izango du.

4. ARTIKULUA

63. edizioan hautatutako film guztiei partaidetza ziurtagiria emango die Donostia Zinemaldiaren zuzendaritzak.

5. ARTIKULUA

Donostia Zinemaldiko Zuzendari Berriak sailak zuzendarien lehenengo edo bigarren lanak biltzen ditu.

Zuzendari Berriak saileko film guztiak dira Kutxabank-Zuzendari Berriak saria eskuratzeko hautagai. Sari hori Zinemaldiaren kolaboratzaile ofizial den Kutxabank-ek babesten du.

Kutxabank-Zuzendari Berriak sariaren irabazleak 50.000 € jasoko ditu filmaren zuzendariaren eta hura Espainian banatu duen etxearen artean banatzeko.

6. ARTIKULUA

Kutxabank-Zuzendari Berriak sariaren helburua ikus-entzunezko industriaren eta arteen garapenean laguntzea da, bai eta, zinemagile berriak zinemaren kulturara ekartzea ere.

7. ARTIKULUA

Kutxabank-Zuzendari Berriak saria 50.000 €koa da, eta film irabazlearen zuzendariaren eta Espainiako banatzailearen artean banatuko da erdi bana, banku txeke edo nazioarteko txeke bidez, eurotan betiere.

8. ARTIKULUA

Munduko estreinaldiak lehenetsiko dira Donostia Zinemaldiko Zuzendari Berriak sailerako filmak hautatzean. Hala ere, Zuzendari Berriak sailean ondoko baldintza hauek guztiak betetzen dituzten film luzeek ere parte hartu ahalko dute:

- 1) Zuzendariaren lehen edo bigarren film luzea izatea.
- 2) Gutxienez 60 minutuko iraupena izatea.
- 3) Zinemaldia hasi aurreko hamabi hilabeteetan ekoizitakoa izatea.
- 4) Ekoizpen herrialdetik edo herrialdeetatik kanpo estreinatu gabekoa izatea.
- 5) Espainiatik kanpo produzitutako edo koproduzitutako filmek ezingo dute Zinemaldiaren aurretik egingo den beste inolako zinema-jaialditan parte hartu, salbu eta FIAPFek "lehiatzeko ez diren" zinema-jaialditzat harturikoetan edota ekoitzi diren herrialdeko zinema-jaialdietako lehiaketa nazionaletan.

Espainiatik kanpo produzitutako edo koproduzitutako filmek ezingo dute beren ekoizpen-herrialdeetako zinema-ekitaldietan parte hartu, baldin eta FIAPFek "lehiatzeko zinema-jaialdi" kategorian onartutako zinema-jaialdien baitan egiten badira.

Salbuespen gisa, zuzendaritza batzordeak aldeztetik lehiatzeko ez diren ekitaldi zinemazaleetan parte hartu duten ekoizpenak onartzeko eskubidea izango du.

- 6) Zuzendari Berriak Sailean lehiatzen diren eta oso-osorik Espainian ekoitzi diren filmak munduan estreinatu gabeak izan beharko dira. Gainera, Zinemaldiaren aurretik ezingo dira beste inolako zinema-jaialditan erakutsi, ez herrialdekoa ez nazioartekoa, ezta publikoki estreinatu edo eman ere.
- 7) Zuzendari Berriak Sailera aurkeztutako filmak ezingo dira publikoki eman Espainian, harik eta Zinemaldiak ofizialki aurkeztu arte.
- 8) Zuzendari Berriak Sailerako filmak honako euskarrietan aurkeztu beharko dira nahitaez: DCP, 35mm, Betacam Digitala eta HDCAM (estandarra).

Euskarria DCP den kasuetan, Zinemaldiaren sail teknikoak zerbitzariaren ziurtagiria bidaliko die filmaren ekoizleei edo ordezkariari, baita KDMak jasotzeko koordinatuak ere. KDMak egitearen kostua filmaren ekoizleen edo ordezkarien kargura izango da.

9. ARTIKULUA

Zinemaldiak aukeratutako film guztiak jatorrizko bertsioan aurkeztuko dira.

- 1) Gaztelaniazko azpituluekin, jatorrizko bertsioa ez bada gaztelaniaz.
- 2) Ingeleseko azpituluekin, jatorrizko bertsioa gaztelaniaz edo/eta euskaraz bada.

Filmaren jatorrizko bertsioa euskaraz bada, Zinemaldiak bere kargura jarriko ditu azpitulatu elektronikoko osagarriak, gaztelaniazkoek gain.

Ale horren azpitulatuak filmaren ekoizleen edo ordezkarien kargura izango dira.

Zinemaldiak bere kargura egingo du ingelesezkoaren osagarri izango den azpitulazio elektronikoa, gaztelaniaz azpitulatuta dauden eta jatorrizko bertsioa ingelesezkoa ez den filmentzat. Horretarako, ingelesezko azpitulatuak dituen filmaren behin betiko jatorrizko bertsioaren DVD bat eta ingelesezko azpitulatuaren zerrenda eman beharko zaizkio; online eta deskargatu daitekeena (Zinemaldiaren barne erabilerarako eta dokumentu konfidentziala izango dena).

Azpitulatu elektronikoa Zinemaldiaren zerbitzura lan egiten duen enpresak jarriko ditu.

10. ARTIKULUA

Zinemaldiko Zuzendari Berriak Sailean parte hartzeak honako hau dakar berekin:

- 1) Araudi hau onartzea.
- 2) Filmen sareko izen-emate formularioa behar bezala beteta izatea. Formularioa honako web orri honetan dago: www.sansebastianfestival.com.

Espanian produzitu edo koproduzitu diren filmen ekoizleek edo ordezkariak zuzenean jarri beharko dute harremanetan filmen sailarekin, films@sansebastianfestival.com helbidean, sareko formularioaren bitartez izena eman aurretik.

- 3) Izen emandako film luze bakoitzaren tasa ordaindu izana. Tasa hori 70 €-koa da (% 21eko BEZa barne) eta eurotan ordaindu beharko da izena emateko unean, kreditu txartel bidez soilik (Visa, American Express, Mastercard).

11. ARTIKULUA

Zinemaldiaren zuzendariak filma ofizialki gonbidatu ondoren, hautatutako filmaren ekoizleek edo ordezkariak izen-emateko formularioa berretsi beharko dute eta, behar bezala beteta, Zinemaldiaren aurretik bidali, gehienez, 2015ko abuztuaren 1a baino lehen.

Zinemaldiak baieztapen horren sinatzailea hartuko du solaskide bakartzat, filmak Zinemaldian parte-hartzearekin lotutako alderdi guztiak negoziatzeko, baita arduradun bakartzat ere, filmaren ekoizpenean parte hartu duten beste enpresen edo pertsonen gaineratik.

Filmaren ekoizleek edo ordezkariak eginiko baieztapenak berekin dakar Zinemaldiko zuzendaritzak exijituriko arau guztiak onartzea, eta horren arabera, ezingo dute, inola ere, gonbidaturiko filma Zinemaldiaren programaziotik kendu.

12. ARTIKULUA

Zinemaldiak hautatutako filmei egindako gonbidapena konfidentziala izango da, eta ekoizleek edo ordezkariak isilpean gorde beharko dute, Donostia Zinemaldiak ofizialki aurkezten duen arte.

Donostia Zinemaldiaren programazio orokorrak eta emanaldien ordutegiez zuzendaritza batzordea soilik arduratuko da.

13. ARTIKULUA

Prensa buletinak, Zinemaldiko katalogoa eta webgune ofiziala dokumentatzeko beharrezko materiala (sinopsia, fitxa tekniko-artistikoa, zuzendari(ar)en biofilmografia eta argazkia, filmaren argazkia eta trailerra) izena emateko sareko formulariotik hartuko da. Horretarako, formularioa behar bezala beteta egon beharko da, 2015ko abuztuaren 1a baino lehen.

Filmaren ekoizleek edo ordezkariak Zinemaldiko sailek eskatzen dieten hautatutako filmen sustapen-materiala bidali beharko dute unean-unean.

14. ARTIKULUA

Gonbidatutako filmen ekoizleek edo ordezkariak Zinemaldian emango dituzten filmen aleak jaialdia hasi baino 15 egun lehenago bidali beharko dizkiote filmen sailari, Zinemaldiaren egoitza nagusira:

DONOSTIA ZINEMALDIA
Filmen Saila
Victoria Eugenia antzokia
Okendo plaza 1
20004 Donostia
Tel.: +34 943 481212
Faxa: +34 943 481218
films@sansebastianfestival.com

Filmaren ekoizleek edo ordezkariak erabakiko dute gehienez zenbat ale bidali Zinemaldia.

Zinemaldiko zuzendaritzak eskubidea izango du filmaren aleak ukatzeko, baldin eta sail teknikoak, egiaztatu ondoren, proiektatzeko desegokitzat jotzen baditu. Zinemaldiko zuzendaritzak txosten teknikoa bidaliko die filmaren titularrei edo ordezkariari kopietan arazoak aurkitzen baditu.

15. ARTIKULUA

Hautatutako filmen aleen garraio-gastuak eta aseguruaren partaidearen kargura izango dira, harik eta Zinemaldiaren egoitza nagusira edo haren aduanako agentearengana iristen diren arte.

Bestalde, Donostia Zinemaldiaren antolakuntza arduratuko da filmaren aseguruaz, haiek egoitza nagusira edo haren aduanako agenteari heltzen zaizkionetik itzultzen dituen arte.

Euskarria DCP izanez gero, KDMak egitearen kostua filmaren ekoizleen edo ordezkarien kargura izango da.

Zinemaldiak hautaturiko filmen itzulketaren parte-hartzaileak ordainduko du, eta ez da klausuraren aurretik egingo.

Zinemaldian zehar filma hondatuko balitz, horren erantzukizunak ez du gaindituko ale berri bat prestatzearen kostua, ale estandarrak inprimatzeko laborategien indarreko tarifen arabera.

16. ARTIKULUA

Kutxabank-Zuzendari Berriak Saria Donostia Zinemaldiak hori erabakitzeko berariaz osatutako eta aukeratutako epaimahai batek erabakiko du.

Kutxabank-Zuzendari Berriak Sariaren epaimahaiak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- 1) Zinemaren eta kulturaren alorreko bost profesionalek osatutakoa izatea, eta horietatik, gutxienez lau, beste herrialde batzuetakoak izatea (gutxienez lau herrialde desberdin).
- 2) Ezingo dira Kutxabank-Zuzendari Berriak epaimahaiko kide izan Zuzendari Berriak Saileko lehiaketara aurkeztutako filmen ekoizpenean edota ustiapenean interesak dituzten pertsonak.

17. ARTIKULUA

Kutxabank-Zuzendari Berriak Saria ezingo da eman gabe utzi, ezta film bati baino gehiagori eman ere.

18. ARTIKULUA

Kutxabank-Zuzendari Berriak Saria Zinemaldiaren amaierako galan jakinarazi eta banatuko da.

Amaierako gala horretan, gainera, Kutxabank-Zuzendari Berriak epaimahaikoak ez diren gainerako sailtako sariak ere emango dira.

19. ARTIKULUA

Kutxabank-Zuzendari Berriak Sariari dagokion diru-kopurua film hori Espainian banatuko duen enpresarentzat izango da, eta film irabazlea gutxienez Espainiako bi udalerritako zinema-areto komertzial batean estreinatu dela egiaztatzen den unean emango zaio. Filma estreinatzeko urtebeteko epea izango du enpresak, Zinemaldia amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.

Espainiako banatzaileak jasoko duen Kutxabank-Zuzendari Berriak Sariari dagokion diru-kopurua indarreko araudian ezarritako atxikipenari lotuta dago.

20. ARTIKULUA

Sari bat jaso duten filmen ekoizleek film horiei buruzko publizitate eta prentsarako material denetan saria aipatzeko, epaimahaiak erabakian idatzitakoa hitzez hitz errespetatzeko eta Zinemaldiaren logotipoa erabiltzeko konpromisoa hartzen dute. Logotipoa eskuragarri egongo da hainbat hizkuntzatan Zinemaldiaren webgune ofizialean: www.sansebastianfestival.com.

21. ARTIKULUA

Zinemaldiaren The Industry Club arduratuko da berariaz akreditazioa duten zinemako industriaren profesionalez. Adierazitako saila koordinatzeaz arduratzen den profesional-taldeak akreditatiodun horien eskura jarriko ditu haien lana errazteko bitarteko guztiak. Eskaintako zerbitzuen artean, filmak bideotekan ikusteko aukera izango dute, ekoizleek horretarako baimen idatzia eman duten kasuetan.

22. ARTIKULUA

Ezusteko arazorik gertatzen bada (antolakuntzan edo funtzionamenduan) edo arau hauek behar bezala betetzen ez badira, Zinemaldiaren zuzendaritzak subiranotasuna izango du, baita azken erabakia hartzeko ahalmena ere, nazioarteko zinema ekitaldiei dagokienez FIAPFek ezarritako arauetara jarraiki.



Araun interpretazioari buruzko desadostasunik egongo balitz, gaztelaniazko testua aplikatuko da.

Araudi hau interpretatzeko orduan sor litezkeen zalantzak Donostia Zinemaldiaren zuzendaritzak ebatziko ditu.

